

Ezinbesteko zerbitzu baliotsua

Saneamenduaren Mundu Egunak gogorarazten digu garrantzitsua dela giza eskubide hori maila globalean bermatzea eta Estatuko eta Europako araudia betetzeak tokian-tokian dakartzan erronkei aurre egitea.

Azaroaren 19a Saneamenduaren edo Komunaren Mundu Eguna izango da, gaiak duen egoeraz hausnartzeko aukera, oso errealitate ezberdinetan, baina helburu berarekin: pertsonen eta gure ingurunearen osasuna babesteko beharra.

Planetaren zati handi batean milioika pertsonak oraindik ez dute komun soil bat izateko aukerarik, eta egoera horrek pertsona pobreei eragiten die batez ere, bereziki emakumei eta neskatilei. Beraz, helburua saneamendu sistema seguruak sortzea da oraindik ere, giza eskubide hori eta, horrekin batera, bizitza osasuntsu, duin eta produktiboa bizitzeko aukera bermatzeko.

Errealitatea oso bestelakoa da gure gizarteetan, izan ere, hiri uraren operadoreen egungo kezka da Europan eta Estatuan **onartu berri den araudia behar bezala betetzea** (hurrenez hurren, Hiri Hondakin Uren Tratamenduari buruzko Zuzentaraua, eta 665/2023 Errege Dekretua, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua aldatzen duena), **helburu nagusia izanik uraren hiri ziklotik datorren kutsadura murriztea.**

Horrenbestez, errealitate klimatiko berriaren eta araudiaren betekizun tekniko onorioz, beharrezkoa da saneamendu sistemak **berrikuntza teknologikora** eta **efizientzia energetikora** egokitzea, azpiegiturak berritzeko eta tratamendu berriak txertatzeko **inbertsioa** handitzea,

mikrokutsatzaileak **kontrolatzeko mekanismoak** hornitzea, berroneratutako urak eta arazketako lohiak **berrerabiltzearen** alde egitea eta **Saneamendu Sistemak Kudeatzeko Plan Integralak** egitea. Azken horiek arreta berezia jartzen dute euri uren kudeaketan, estolderiara eramaten dituztelako atmosferako kutsadura zein gero eta iragazgaitzagoak diren hiri batzuetako lurzorua garbitzetik datozen substantziak.

Testuinguru horretan, AMVISarentzat, saneamenduaren etorkizuneko kudeaketaren funtsezko alderdiak dira jardueren plangintza, zerbitzuen digitalizazioa eta bilakaera teknologikoa, naturan eta neutraltasun energetikoan oinarritutako irtenbideak hartzea eta, bereziki, azpiegiturretan modu ordenatuan inbertitzea.



Saneamendurako irispide unibertsala 2025ean gainditu gabeko ikasgaia da oraindik ere.

3.400 milioi lagunek, hau da, munduko biztanleriaren ia erdiak, oraindik ez dute arriskurik gabe kudeatutako saneamendu zerbitzuak eskuratzeko modurik (OME/UNICEF, 2025).

Nazio Batuek ohartarazi digute premiakoa dela inbertitzea Klima Aldaketari eta azpiegiturak zahartzeari aurre egiteko prestatutako saneamendu sistemetan, beti egongo baikara horien mende, gaixotasunetatik babesteko eta gure ingurua garbi mantentzeko.

Nola egiten diegu aurre erronka horiei gure hirian?

AMVISAn ere lanean ari gara datozen urteetan araudiaren eskakizunetara egokitu ahal izateko. Horretarako:

- Estolderia sarean 1.000 km baino gehiagoren funtzionamendua bermatzen dugu, aldizkako garbiketan eta kolektoreak berritzean oinarritutako mantentze lanaren bidez.
- Urbanizazio berrietan euri urak eta ur beltzak bereizteko sareak zabaltzen jarraitzen dugu, eta Administrazio Batzarretako saneamendu sistemak hobetzen.
- Saneamendu eta arazketa sistemaren modelizazio eta digitalizazio osoan aurrera egiten dugu, Smart AMVISA 2025 Proiektuan jasotzen den bezala, prezipitazioei arreta jarrita, saneamenduaren kudeaketa adimentsuagoa ahalbidetzeko eta Zadorra ibairako hustuketak murrizteko.
- Zenbait proiektutan parte hartzen dugu, mikrokutsatzaile iraunkorrak

(farmakoak eta pestizidak) ezabatzeko teknologia berriak garatzeko eta baliozkotzeko.

- Drainatze jasangarriko hiriko sistemiei buruzko hiri eskalako Plan Zuzentzaile bat idatziko dugu, prezipitazio moduaren aldaketetara egokitzeko.



IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea: info@amvisa-futura.org